

# Bero-beroan

## Donostiako lehen Kafe Antzokia: Doka

**IZEN HORIXE IZANGO DU** maiatzean irekiko duten Donostiako lehen Kafe Antzokiak. 300 metro koadroko egoitza Antigua auzoan dago eta Bilboko, Elgetako, Ondarroako eta Durangoko kafe antzokien ereduari eta filosofiari jarraituko dio.

## L'Express euskararen egoerari buruz

**L'EXPRESS** aldizkari frantsesak, Akitaniako edizioan, euskarak Iparraldean duen egoerari buruzko artikuluari eman dio azala. "Euskara nola salbatu" du artikulua izenburu eta Claude Hagège hizkuntzalariari egindako elkarriketa baliatu du euskararen egoera azaltzeko. Hagègek euskarak Frantzia bizi duen egoera kezagarritzat jo du. Euskara salbatzeko hainbat pauso azaldu ditu: Frantziak Europako Hizkuntza Gutxituen Karta sinatzea; inbertsio

sendoa egitea; arriskuak hartzea, Espainiak euskaldun eta katalanekin egin duen moduan, autonomia zabala emanetz; eta frantsesak heztea "hizkuntza gutxiak Frantziaren batasunarentzat jada arrisksuak ez direlako".

## Leintz bailarako hizkera sarean

**ESKORIATZA**, Aretxabaleta eta Leintz Gatzagako 94 hiztunen jarduna jaso du Badihardugu elkarteak. Sarean audio, transkripzio eta bideo pasarte batzuk zintzilik daude.

<http://eskoriatza.badihardugu.com/>  
<http://aretxabaleta.badihardugu.com/>

## Beste Haur Eskola, gaztelaniaz eta ingelesez

**IRUÑEKO UDALAK** Donibane auzoan irekiko duen hirugarren haur eskola da, aurreko biak bezala gaztelaniazko eta ingelesezkoa. Haur Eskolak Euskaraz plataformak ez du lortu Udalarengan

eragiterik, azken urteotan ez baitu euskarazko haur eskolarik ireki Udalak. Plataformak mozioa aurkeztu du.

## Gaztelaniara itzultzeko lantegia

**EIZIEK** gaztelaniarako literatur itzulpenari buruzko lantegia antolatu du gai horren inguruan gogoeta eta praktika egiteko asmoz. Maiatzaren 11n eta 12an egingo da lantegia, Gasteizko EHUko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean.

## Aleman eta Lakarra euskaltzain oso izateko hautagaiak

**SAGRARIO ALEMAN** etxalekuarra (Nafarroa) Patxi Zabaleta, Patxi Salaberri eta Andres Iñigo euskaltzainek proposatu dute eta Joseba Lakarra arrazundarra (Bizkaia) Jose Antonio Arana Martija, Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundiak.

## Bizitza eta osasuna babestu lanean

Asteburu honetan, 28an, Europa guztian Lanean Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna izango da. Berriz ere, sindikatuen arteko desberdintasunek lanean bizitzaren eta osasunaren aldeko ekintza bateratuak egitea eragotzi dute. Bakoitzak bere ekintzak antolatu ditu. Azpimarratzekoa da LABek ordubeteko lanuztea iragarri duela laneko ezbeharren aurka. Iaz Euskal Herrian 129 langile hil ziren, larriki askoz gehiago zauritu eta oraindik gehiagok sufritu zuten lan gaixotasunen bat, nahiz eta azken estatistika ofizialek ez dizkiguten gaixoen datuak zehazten. Urte honetan zehar, dagoeneko 40 langile hil dira eta ez dakigu, estatistika ofizialak falta baitira, zenbaterik dituzten lan gaixotasunak. LANeren (Lanaren Nazioarteko Erakundea)

arabera, minbizi kasuen %8 eta %16 artean lantokian sortu dira. LANeren arabera, 600.000 lagun inguru hiltzen da urtean arrazoi horrengatik. Horien artean baita euskal herritarrek ere, amiantoaren biktimak. Atentatu politikoak gertatzen direnean beti bizitzaren alde hitz egiten duten erakunde politiko eta judizialek langileen bizitzaren alde ere agertu beharko lukete, askoz jende gehiago hiltzen baita lantokietan. Eta, batez ere, legeak egin beharko lituzkete, baldintza onuragarriak lortzeko hainbeste lan gaixotasun eta lan-ezbehar gerta ez dadin. Horrela, lanaren ezegonkortasuna eta kontratatzerakoan iruzurra galaraziko lituzkete eta segurtasun eta prebentzio arauak betearaziko.

Juan Mari Arregi

## BAHEA

**Mikel Iturriak Harrikadak blogean esanak:** "Aste Santuaren bueltan New York-eko korrespondentzaren bloga deskubritu dut. Luis Foncillas da bera. Kasu honetan, ez dago Radio Euskadiren guardasolapean, EITBren babesean baizik. José Félix Azurmendiren bloga ere bertan da. Harritu nauena izan da ez dagoela euskaraz ari diren profesionalen blogarik. Eta ez dakit zein den arrazoiak. Era berean, emakume gutxi daude blogatzen. Eskertuko nuke, bereziki, Arantxa Iturberen, Maite Artolaren edo Susana Mujikaren bitakorak. Non daude? Non zaudete?"

**Ramon Agirrek UKn esanak:** "Anpa Etxebeste! filmak erakutsi du euskarazko zinema egin daitekeela. Gero, asmatzea edo ez... Baina posible da, eta beharrezkoa nire ustez (...) Euskal Herrian badago euskal aktoreentzako lan merkaturik. Eta gainera, kontratatzen hasi behar dugu antzerkian ikusleria bat ere badagoela. Ez da handia izango, baina badago, eta hori geuk ere elika dezakegu".

## Mugarri bat biktimen eztabaidan

**ORAINDIK EZ DA** heldu Euskal Herrian azken 40 urteetan bizi izan den indarkeriaren biktimekin ekitaldi bateraturik egiteko unea. Eta gainera ez gaude egoera horretatik gertu. Eusko Jaurlaritzak Euskalduna Jauregian antolatutako ekitaldiak mugarri bat jarri du biktimen inguruan herri honetan dauden eztabaida eta ikusmolde desberdinetan, baina oraindik ere urruti dago biktima guztiak asetzeko posizioetik.

ETAk eragindako biktimetan jarri da indarra eta, sakonean, hala izatea nahi zen, nahiz eta bestelako biktima zenbaitzuri ere egin zaien leku, teoriarik bederen. Azken finean, batez ere *Beruneko urteak* deitu izan diren urte luzeetan nagusiki, euskal gizartearen aldetik ETArekiko biktimekiko egon izan den isiltasuna eta ageriko elkartasun eza orekatzen hasi nahi izan da.

1975 eta 1990 artean urtero dozenaka hildako eta zauritu eragiten zituen ETAk. Euskal gizarteko alderdi nagusienek jarduera armatu honen aurkako jarrera agertu bazuten ere, gaitzespen politikoa eta hileta elizkizunetara joatetik haragoko jarrerarik ez zen biktimekiko. Hori asko jota, zeren eta euskal herritarren zati handi batek, atentatuokin ados ez egon arren, ez zuen erakusten inongo dolu motarik –eta are gutxiago sostengurik– euskal gizartean errepresio jarrera bortitza agertzen zuten estatuko segurtasun indarretako kideekiko. Ñabardura asko jarri dakizkioke aipatutakoari, baina orokorrean hala zen.

Estatuaren jardun molde desberdinen biktimek aldiz, bazuten herritarren multzo esanguratsu baten sos-



ETAren 2001eko atentatua, Gasteizen, Justizia Jauregiaren kontra.

tengua eta elkartasuna. Esan liteke urte luzeetan, gizartean ez zela ozen lantzen ETAren biktimekiko elkartasuna eta aldiz, Estatuaren jardun errepresiboaren biktimek hori bederen bazutela.

Hala izan zen urte luzetan, baina egoera aldatuz joan zen apurka, eta hainbat eragile tarteko –Ajuria Eneko Ituna eta ETA beraren jardun moldeak, besteak beste– ETAren biktimekiko jarrera aldatuz joan da, eta baita Estatuaren eragileen aldetik eragindako biktimekiko ere. Segurtasun indarrek torturatutako pertsona batek, esate batera, zaila du bere kasua ozen agertu ahal izatea komunikabide nagusienetan, eta hori ezean zaila du gizartearen zati handienaren elkartasuna jasotzea. ETAren azken 10 urteetako atentatu moldeak, halaber, gizarteko sektore askoren salaketa eta elkartasun jarrera alboratzera eramaten du.

Euskal gizartean biktimekiko oro har izan den jarreraren inflexio puntu batera heldu gara agian Euskaldunako ekitaldiarekin, eta inflexio puntutik abiatzen den marrak aurrerantzean goranzko joera izango duela espero liteke. Egoera laburbiltzeko,

eta ñabardura askorekin, Euskaldunako ekitaldiak biktima molde bat kontuan hartzen du eta bestea bazterrean uzten du, horrekin justiziaren bideak nabarmen estutzen.

Egia da biktimei egin dakiekeen omenaldirik onena biktima gehiago ez izateko akordio politikoa lortzea dela, baina une hori iritsi arte zain egoteko asmorik ez duela dio biktimekiko hausnarketa horrek. Hasi besterik ez da

egin eta luze joko duen eztabaida da, halakoetan normala denez. PPK kontrolatutako biktima elkarte zenbait –adibidez AVT– ez zen Euskaldunak izan; torturatuek, sakabana-ketaren ondorioak pairatzen dituztenek, GALEk hildakoen senideek eta beste askok ere, beren burua baztertuta ikusi dute joan den igandeko ekitaldian. Eta horiek guztiak ere Euskal Herrian bizi den gatazka bortitzaren biktima dira. Hainbat alde ditu biktimen eztabaida sakon horrek eta horietako bat da gizartearen hainbat sektorek erakutsitako jarrera; hau da etorkizunera begira berradiskidetze prozesua markatuko duena. Baina zuzenbide estatuen ikuspegitik, berau ordezkatzeko erakunde nagusien jarrera ere funtsezkoa da eztabaida hori laguntzeko eta alde horretatik, badirudi horiek euskal gizartearen atetik daudela gai arantzatsua behar bezala bideratzeko. Ikuspegi horretatik begirata, ETAren biktimek Estatuaren estaldura izan dute biktimen eragileak atxilotu, epaitu eta zigortzerakoan. Maila horretan, Estatuaren biktimekiko defizita oraindik ere erabatekoa da.